

Romeo & West

Orkestra eta narratzailearentzako kontzertu didaktikoa

Bigarren Hezkuntzarako Gida didaktikoa

Musika: Sergei Prokofiev, Leonard Bernstein

Testua: Miguel Angel Pacheco-k, (William Shakespearen antzezlanean oinarritua)

Gida didaktikoa: Ana Hernández Sanchiz

Romeo & West

Kontzertua

Argumentua

Testua

Beste Romeo batzuk, beste Julieta batzuk

Musika

Zinema

Liburuak

Liburu-diskak

Margolaritza: aurrerrafaelistak

“Romeo eta Julieta” Baleta, op.64

Hitzaurreak

Zaldun eta damak... dantzan!

Tragedia ala drama?

Shakespearen musikariak: eszena eta abestia

West Side Story: dantza sinfonikoak

Gatazka antagonikoak

Latindarrak: “marrazoak”

Mambo

Huapango

Buleria

Anglosaxoiak: “Jet-ak”

Prologue

Cool Fuga

ERANSKINAK

Romeo & West

Kontzertua

Baluartean entzunen dugun kontzertuak William Shakespeare ezinbesteko idazlearen lan esanguratsuenetariko bat lantzen du: Romeo eta Julieta.

Artista askok antzezlan horretara hurbildu dira, eremu artistiko guztietatik: musikariak, margolariak, eskultoreak, koreografoak, antzerkigileak edo zinemagileak liluratu egin dira *Romeo eta Julietaren tragediarekin*, gizarteak eta familiako konpromezuek debekatu zuten maitasunarekin, ohorea norberaren askatasunaren gainetik zegoen garaian gertatu zen amodioarekin.

Istoria hau hamaika musikagileek moldatu dute (Bellini, Berlioz, Chaikovsky, Gounod...), eta guztien arteko bi aukeratu ditugu beraien musika-lanak ezagutu eta gozatzeko: Sergei Prokofiev (Romeo eta Julieta Baleta) eta Leonard Bernstein (West Side Story).

Kontzertuko programan Prokofiev-en baletaren zenbaki-sorta bat eta West Side Story-ko Dantza Sinfonikoak sartuta daude.

“Romeo y Julieta” Baleta, Op.64, S. Prokofiev-ek:

- 1. zbk: “Sarrera”
- 5. zbk: “Eztabaida”
- 6. zbk: “Borroka”
- 7. zbk: “Dukearen dekretua”
- 13. zbk: “Zaldunen dantza”
- 21. zbk: “Romeo eta Julietaren maitasun-dantza”
- 33. zbk: “Tebaldok Mercuzioren aurka borrokatzen du”
- 35. zbk: “Romeok Merkuzioren heriotza mendekuatzea erabakitzen du”
- 51. zbk: “Julietaren hileta (*eta Romeoren heriotza*)”

“West Side Story”-ko Dantza sinfonikoak

- Prologue (Allegro moderato)
- Somewhere (Adagio)
- Scherzo (Vivace e leggiero)
- Mambo (Meno Presto)
- Cha-cha (Andantino con grazia)
- Meeting Scene (Meno mosso)
- Cool Fugue (Alegretto)
- Rumble (Molto allegro)
- Finale (Adagio)

Argumentua

Bi musika-lanetan istorioa paraleloa da: gazte bikote bat (Romeo eta Julieta / Tony eta María) dantzaldi batean maitemintzen dira. Beraien inguruneen etsaitasunak (senideak/koadrilak) ezin du maite-su sekretua geldiarazi. Baina mutikoaren lagunik onena eta neskaren neba hiltzen dira borroka baten ondorioz. Zoritxarreko borroka horrek bi alderdien arteko gorrotoa areagotzen du eta gertaerak azkartzen ditu. Sortu den tragedia bikotearen maitasunari ere Herio-kutsua emanen dio. Zorigaiztoko bukaerak, paradoxikoki, betiko etsaiak adiskidetu egingen ditu, ordura arte aurka egin arren...

Testua

Shakespeare jaio baino lehenengo publikoak jada ezagutzen zuen Romeo eta Julietaren istorioa. Zenbait moldaketa egon arren, Arthur Brook egilearena William Shakespearen iturri zuzena izan zen. Shakespearek, 1595ean idatzitako tragedia honetan, profil zaharreko eta orainarekiko tolerantzia gutxikoa zen bere garaiko gizartea irudikatzen du. Hortaz, bi maitale gazteen zoritxarreko etorkizuna taularatzen du: ezin zituzten pairatu bi familien arteko etsaitasunak sortutako presioak eta, horregatik, bien patuak Herioarekin bat egin behar dute.



William Shakespeare Stratford-upon-Avonen (Ingalaterran) jaio zen, 1564n. Antzezlea eta antzezgilea, berrogei antzezlan baino gehiago idatzi zuen. Bere antzokia ezarri zuen, "The Globe". Jatorrizkoaren erreplika oraindik jardunean dago Londresen. Bitxiki, literatura unibertsalaren jenio hau 1616ko apirilaren 25ean hil zen, beste jeinu baten egun berean: Miguel de Cervantes.

Romeo eta Julietaren istorioaren erakarpenaz, 1949an, Jerome Robbins-ek Romeo eta Julietan oinarritutako musikal bat sortzea Leonard Bernstein-ari proposatu zion. Baina orain garaiko EE.BB.etako giza-errealitatera ekarrita egon behar zen. Arthur Laurents-ek idatzi zuen libretoa eta Bernstein-ek opera eta Broadway-eko musikalaren artean zegoen musika. Orain Tonyk eta Mariak, protagonistek, haien maitasuna Manhattanen biziko dute.

Miguel Ángel Pacheco idazleak bi istorio lotu eta kontzertuan entzunen duzuen testua moldatu egin du.



Miguel Ángel Fernández-Pacheco 1944an Jaén-en jaio zen. Madrilgo San Fernando-ren Arte Ederretako Eskolan ikasi zuen. 60ko hamarkadatik haur eta gazte literaturaren munduan lan egiten du, egile, irudigile eta diseinatzaile gisaz. Bere lanak zenbait sari jaso du urtean zehar: 1973ko "Lazarillo" Irudigintza Saria; 1980eko eta 1983ko Irudigintza Sari Nazionalak; 1992ko "Apel.es Mestres" Saria, Ana López Escriváren batera "La familia de Mic" liburuarengatik eta 1996ko "Lazarillo" Sorkuntza Literarioaren Saria "Los zapatos de Murano" eleberriarengatik. Gaur egun Anaya Educacion argitaletxeko azalen diseinatzailea da eta Salamancako Arte Ederretako Fakultateko Diseinu sailan ere lan egiten du.

Beste Romeo batzuk, beste Julieta batzuk

Maitasun adoleszente honen istorio ederrak azaltzen duen grina ezkutua artista asko harrapatu ditu. Horregatik, bi protagonista arte unibertsaleko irudi enblematiko bihurtu dira.

☞ Pertsonaiei buruzko ikuspuntuak egilen desberdinen proposamenetan aldera ditzakezue.

Musika

Vincenzo Bellini
"Capuletos y Montescos" *opera* (1.830)

Hector Berlioz
"Romeo y Julieta" *baleta* (1.839)


Charles Gonoud
"Romeo y Julieta" *opera* (1.864)

Piotr Ilich Chaikovsky
"Romeo y Julieta" *Obertura-fantasía* (1.869)

Zinema

- 1912. *Indian Romeo and Juliet*.
- 1916 *Romeo and Juliet*, Theda Bara banpiro-aktorearekin.
- 1920. *Romeo eta Julieta*, Lubitsch-ena.
- 1924, *Romeo eta Julieta* Mack Sennett-ena, laburmetraia.
- 1936. *Romeo eta Julieta (Romeo and Juliet, George Cukor)*. Lehenengo moldaketa onesgarria.
- 1943, *Romeo eta Julieta*, Cantinflasen parodia.
- 1954. *Romeo eta Julieta (Romeo and Juliet)*, Renato Castellani-rena. Angloitaliar koprodukzioa. Lehenengo bertsio koloreduna.
- 1955. *Romeo eta Julieta (Romeo i Julietta, Lev Arnshtam eta Leonid Lavrovsky)*. Galina Ulanova eta Juri Zhdanovek baleta klasikoaren bertsio sovietiko hau egiten dute.
- 1960. *Romeo eta Julieta eta ilunpeak (Rome, Juli a TMA)*, Jiri Weiss-ena, Donostiako Zinemaldiaren Saria.
- 1961. *West Side Story*, Jerome Robbins eta Robert Wise-rena. Ezinbestekomusikala.
- 1963. *Los Tarantos*, Rovira Beleta-rena. "Romeo eta Julieta" mundu ijito eta flamenkora murgiltzen zaigu.
- 1966. *Romeo and Juliet*, Paul Czinner-ena, Rudolf Nureyev eta Margot Fonteyn Romeo eta Julieta dira. Baleta klasikoaren filmaketa britaniarra.
- 1968. *Romeo eta Julieta (Romeo and Juliet/I giovani amanti di verona)*, Erresuma Batuak eta Italiak ekoiztua. Franco Zeffirellik moldaketa onesgarria egiten du. Lehen aldiz protagonistak benetan erabeak dira eta ekintza jatorrizko lekuetan gertatzen da.
- 1996. *Romeo + Julieta (Romeo and Juliet, Baz Luhrmann)*. Leonardo DiCaprio eta Claire Danes-ekin.
- 1999. *Shakespeare in Love*. John Madden zuzendariak eta Marc Norman eta Tom Stoppard gidolariak *Romeo eta Julietaren* xehetasun batzuk idazlearen bizitzaren elementu bezala erabili zituzten.
- 2000. *Romeok Hil Behar Du (Romeo Must Die)*, Andrzej Bartkowiak-ek zuzenduta. Borroka-arteko filmea. Lehian dauden familiak amerikar bat eta chinatar bat dira.
- 2006. *Julieta, fokatxo xelebrea (Romeo & Julieta, sealed with a kiss)*. Shakespearen argumentua, baina protagonistak fokak dira. Txikientzat.


Ikuskizunak: behar-beharrezkoak... ez galdu!



ROMEO + JULIETA W. Shakespeare-k (1996)

Verona Beach-en bi famili boteretsuenen arteko istiluak etengabe gertatzen dira eragin eremua menperatzeko (Montesco familia eta Capuletotarrak). Testuinguru hiritar eta bortitz batean, Fulgencio Capuletok Romeo agertzen den festa bat antolatzen du. Hortan, Capuletotarrek Julieta bere alaba gaztea Dave Paris harroputzarekin ezkontzeko hitza emateko asmoa dute. Baina Romeok eta Julietak elkar ikusten duten lehenengo unetik, maitasun-sua sortzen da.

Egokitzapen hau Shakespearen antzezlanari nahiko fidela da, testua, pertsonaiak eta lekuak errespetatzen ditu eta... Baina gaur egunera eta koadrila eta mafietako borroketara ekarrita. Ikusten baduzue, ongi eta zehatz ezagutuko duzue "Romeo eta Julieta"ren istorioa eta Shakespearen hizkera.



WEST SIDE STORY (1961)

Montescotar eta Capuletotarrak ez dira familiak, baizik eta kale-bandak; ez dira Veronan bizi, Manhattanen baizik eta beraien lehiak Leonard Bernstein-en erritmoz dantzatzu konpontzen dituzte. Romeo eta Julietaren istorioa Broadway-erako moldatu zuen arrakasta handiko musikala da, ezinbesteko dantza-saioak dituena. Irabazitako 10 Oscar sariek bere ospe handitu zuten.

New York-en West Siden bi gazte-bandak nagusigoa lortzeko lehian ari dira: *sharks*, Puerto Rico-tik etorriak, eta *Jets*, anglosaxoiak direnak. Azken hauen burua Riff da, Tony buru ohiak lan egiteko eta bizimodu normala eramateko koadrila utzi zuelako. Bestaldetik Bernardo, puertoricotarren burua, irlatik etorri berria den bere arreba Mariarekin bizi da. Gau batez, dantzaldian, bi talde elkartzen dira eta borroka bortitz bat hastear dago.

- ☞ Taldeka, aukeratu eta ikusi ezazue esandako pelikularen bat eta bere argumentua idatzi. Jatorrizkoarekin konpara itzazue, parekotasun eta desberdintasunak azalduz.
- ☞ Aukeratu sekuentziaren bat, gidoi labur bat idatzi eta gelan antzeztu ezazue.
- ☞ Konparatu filmetan agertzen diren gatazkak gaur egun zuen ingurunean edo maila orokorrago batean bizi diren egoerekin: koadrilak, banda, mafiak, erlijioak, politika, kirol-zalekeriak...
- ☞ Hurbilak diren gatazkak erabiltzen idatz ezazue zeuen argumentua. Laburmetrai bat grabatzeko gidodia egitera ausartzen zarete?
- ☞ Bila itzazue internetez filmetako kartel eta argazkiak eta "kartelera" bat osatu, irudiak, kritikak, aipamenak, e.a. erabiliz.

Liburuak

“*Romeo eta Julieta*” irakur dezazuela gomendatzen dizuet beroki. Antzezlan honetan denetarik aurkituko duzue: umorea, borrokak, gorrotoa, maitasuna... Kontzertuan istorioa gazteleraz entzunen duzue, gazteleraz irakur dezazue liburua, Shakespeareren hizkerara ohitzeko. Gainera, gazteleraz badaude moldaketa batzuek zuen adinekoentzat, adibidez, *Bilsa* argitaletxeko *Biblioteca de oro juvenil* bilduman. Bestaldetik jatorrizko antzezlanaren argitalpen ugariak gazteleraz edo ingelesez aurki ditzakezue liburutegi eta liburudendetan. Era berean Shakespeare euskaraz irakurtzeko aukera duzue *Susa* argitaletxeko itzulpenetan. Hemen duzue bere web orrialdea:

<http://www.susa-literatura.com/emailuak/shakespeare/>

Argitalpen gomendatuak:

Romeo y Julieta

W. Shakespeare

Austral, 317. zbk

1. argitalpena: 1993

14. argitalpena: 2005

ISBN: 84-670-0124-0

Ángel Luis Pujanteren gaztelerazko itzulpen eta bertsioa

Clara Calvo eranskin didaktikoa

Australen publikazio guztiak bezala, argitalpen serio eta zehatza da. Sarrera interesgarri bat dauka, bibliografia eta aldez-aurreko notak dituena. Baina aipagarriena Clara Calvo egindako eranskin didaktikoa da, Shakespearearen lana sakonki ezagutzeko laguntza handia ematen du eta. Idazle eta bere garaiari buruzko koadro sinoptiko eta kronologikoak daude. Bukaeran “*Romeo eta Julieta*” liburuarekin irakurketa tailer bat egiteko gomendioak ematen ditu.

Romeo y Julieta

W. Shakespeare

Biblioteca de oro juvenil

Libsa Arg.


1. argitalpena: 2001

ISBN: 84-662-0317-6

Shakespearearen testuko irakurle gazteentzako moldaketa.

Bilduma honen barruan aurki daitezke *Don Quijote de la Mancha*, *El Lazarillo de Tormes*, *Hamlet*, *Poema de Mío Cid* edo *Diálogos de Platón* liburuak, besteak beste.

Literatura unibertsala eta hispaniarraren testu garrantzitsuetan murgiltzeko modu aproposa.



- ☞ Banakako irakurketa.
- ☞ Eszenak eta pertsonaiak banatu eta irakurketa dramatizatua egin ezazue.
- ☞ Testuko zatiren bat buruz ikasi eta errezipatu edo antzeztu ezazue.
- ☞ Zuen bereko argitalpen ilustratua presta ezazue: tradizionala, komikia, argazki-nobela...

Margolaritza: aurrerafaelistak

Zinemagileek, musikariek eta idazleek “Romeo eta Julieta”ri buruzko beraien ikuspuntu erakutsi diguten antzera, margolariek ere egin dute. Artista askok maitasun galaraziko istorio hau beraien margoetan irudikatzeko aukera aprobetxatu dute eta Veronako maitaleen amodio-kontuak, agurrak eta muxu ezkutuak margotu dituzte. Bereziki, *aurrerafaelistei* buruzko informazioa eta irudiak bilatzen badituzue, hurrengo adibideak bezalako lanak ikus ditzakezue. *Aurrerafaelistak (prerrafaelistak)* XIX.mendeko margolari britaniarrak dira.



“Romeo eta Julieta”
Ford Madox Brown



“Romeo eta Julieta”
Sir Frank Dicksee

“Romeo eta Julieta” Baleta, op. 64

Leningradoko Kirov Antzokiak “Romeo eta Julieta” Baleta op. 64 Sergei Prokofiev musikagile errusiarrari enkargatu zion, SESBra itzuli berria zenean, 1934an. Hamabost urte lehenago emigratu ondoren, bere aberrira itzuli zen. Garaiko kultura sobietarrean gai Shakespearerak inspirazio-iturri garrantzitsuenetariko bat ziren.



Sergei Prokofiev-ek (1891-1953) “Romeo eta Julieta”ren libretoa Radlov eszena zuzendari eta Lavroski koreografoarekin batera egin zuen. Prokofievek partitura 1935ean bukatu zuen. Baletari buruzko beranduago egin zuen suitean beste zenbaki batzuk gehitu zituen. Taularatze prozesua zaila suertatu zen: musika “dantzaezina” zela kontsideratu zuten eta. Hau bitxikeria! Hirurogeita hamar urte lehenago Chaikovskyren “Beltxargen aintzira” antzeko kritikak izan zituen!

Baletaren estreinaldia itxaroten zuen bitartean, Prokofievek ez zuen denborarik galdu eta, beste eszena-musikalanetan egiten den bezala, **Romeo eta Julietaren bi orkestra-suite** eta hamar zatiz osaturiko **piano-suite** bat egin zituen. Hirugarren suite sinfonikoa 1946an egin zuen.

Romeo eta Julietaren hizkera aldiberean ugaria eta homogenea da, liriko, patetiko, pintoresko eta bortitzaren artean mugitzen dena. Prokofieven musikak maitasuna, elkar ulertzea eta bakea aldarrikatzen ditu. Horregatik Shakespearearen istorioak merezi duen mailako musikalan unibertsala kontsideratzen da. Idazle britaniarraren antzezlanean agertzen diren elementu dramatiko guztiak baleteko 52 zenbakitan zehar irudikatzen dira.



Hitzaurreak

S. Prokofiev-en “Romeo eta Julieta” baletaren lehenengo zenbakia hitzaurrea edo “sarrera” da. Lirismo handiko sekzio baten ondoren, melodiak orkestra-familien artean txandakatzen dira.

- ☞ 1. zbk “Sarrera” entzun ezazue. Melodia edo tema desberdin eta orkestraren parte-hartzeak irudikatzeko musikograma bat egin ezazue.

Shakespearearen antzezlanaren *soneto isabeldar* moduko hitzaurre batez hasten da, hau da, hiru lauko handi eta biko bertso bat osaturiko sonetoa. Honetan, antzezleen koruak ikusleei argumentu orokorra eta antzezlanaren iraupena azaltzen dizkie:

Coro	Chorus
En Verona, escena de la acción, dos familias de rango y calidad renuevan viejos odios con pasión y manchan con su sangre la ciudad.	Two households, both alike in dignity, In fair Verona, where we lay our scene, From ancient grudge break to new mutiny, Where civil blood makes civil hands unclean.
De la entraña fatal de estos rivales nacieron dos amantes malhadados, cuyas desgracias y funestos males enterrarán conflictos heredados.	From forth the fatal loins of these two foes A pair of star-cross'd lovers take their life; Whole misadventured piteous overthrows Do with their death bury their parents' strife.
El curso de un amor de muerte herido y una ira paterna tan extrema que hasta el fin de sus hijos no ha cedido será en estas dos horas nuestro tema.	The fearful passage of their death-mark'd love, And the continuance of their parents' rage, Which, but their children's end, nought could remove, Is now the two hours' traffic of our stage;
Si escucháis la obra con paciencia, nuestro afán salvará toda carencia.	The which if you with patient ears attend, What here shall miss, our toil shall strive to mend.

- ☞ Banakako irakurketa egin ezazue. Hasiera batean gazteleraz irakur dezakezue eta gero euskaratu aintzinako estiloa mantenduz. Dena den, zuek ingelesa ikasten duzue eta literatura unibertsaleko klasiko hau jatorrizko bertsoan goza dezakezue. Zineman bezala.
- ☞ Taldeko ozen-irakurketa egin ezazue, koru baten modura. Elkar aditu behar duzue, arreta handiz irakurri eta entzun, elkarrekin arnasa hartu, ahotsak parekatu...
- ☞ Prokofieven Baletaren 1. zbk “Sarrera” berriro entzun, testua ixilka berriro irakurtzen duzuen bitartean. Aztertu musika eta testuaren arteko nahazketarik egokiena.
- ☞ 5-6 laguneko taldeka, “Sarrera” musikalaz lagundutako koru-irakurketa prestatu. Komenigarria da hasieran zati musikala uztea, lauko handien arteko etenak egitea, ea. Hau da, testua musikarekin logikaz eta kriterioz elkartu.

Zaldun eta damak... dantzan!



1998ko urtarrilaren 8an Santanderren, Dantza Konpainia Nazionalarekin, Sergei Prokofieven *Romeo eta Julieta* baleta estreinatu nuen, bi ekitaldiko bertsioan. Nire helburua koreografia Shakespearen dramari fidela izatea zen baina, batez ere, Prokofieven partitura ahalik eta gehien errespetatuz. (...)

Hitz hauekin hasten du Nacho Duatok Dantza Konpainia Nazionalarekin egin zuen “Romeo eta Julieta” ikuskizunaren aurkezpena.

BEGIRA!: Dantza Konpainia Nazionalaren web orrialdean testu konpletua eta balleteko zati baten bideo bat aurki dezakezue:

http://cndanza.mcu.es/vasco/vrepertorio/vduato/vromeo_y_julieta.htm

Ez ahaztu orrialde hau begiratzen. Hor konpainiari buruzko informazioa (bilduma, dantzariak, dantzako argazki izugarri politak....) aurki dezakezue.

Zaldunen dantza

Kontzertuan, Prokofieven baletaren barruan daudenetako bi dantza entzunen dituzue: *Romeo eta Julietaren maitasun-dantza* (21. zbk) eta *Zaldunen dantza* (13. zbk). Azken zenbaki hau musikalanaren indartsu eta ederrenetarikoa bat da.

☞ Begiratu tema nagusiaren partiturari eta Prokofiev maisuak holako musika “moderno” lortzeko nola erabiltzen duen hain baliabide erraz eta tradizionala entzun ezazue: akorde perfektu minorren arpegioak punttudun erritmoan.



Une honetan Paris Kondea, Julietaren senargaia, eta bere zaldunak Capuletotarren etxean antolaturiko dantzaldian dama aurrera agertzen ari dira. Jarraian damen dantza eta Julieta eta Parisen dantza gertatuko dira.

☞ Zenbaki honetarako koreografia asmatu eta prestatu. Bestaldetik, zaldunek damen aurrean egiten duten dantza birsortu dezakezue arropa, eszenografia, e.a. diseinatuz, paperean besterik ez bada ere.

☞ Tragedia ala drama?

Tragediak, komediak, tragikomediak eta drama historikoak. Shakespearen antzezlanak lau talde hauetan sailkatzen dira. Ziur aski deitura hauek askotan entzun dituzue antzezlanaren bat, baita pelikula edo opera bat izendatzeko. Baina, zein da bat eta besteen arteko desberdintasuna? Dударik gabe istorio bat laguntzeko konposatzen den musika generoaren menpean dago.

☞ Hiztegi espezializatu batean esandako hitzak bilatu eta “Romeo eta Julieta” sailkatzeko zein den aproposena eztabaidatu. Tragikomedia? Amaiera zoriontsurik gabeko komedia?...

Shakespearen musikariak: eszena eta abestia

“Romeo eta Julieta”ren IV. Ekitaldian antzerki eta zinema moldaketetan joku handia eman duten pertsonai ero eta txoriburuak agertzen dira: musikariak. Hau da IV. Ekitaldiaren laburpena:

Julieta Paris Condearekin ezkontzera behartuta dago, baina berak ez du nahi eta, gainera, ezin du Romeorekin ezkontuta dagoelako. Ezkontza saihesteko lo-edari bat hartzen du, bere heriotzaren itxura egiten. Julietaren amak eta hazamak aurkitzen dute bere gorputz gelditua eta hiltzat hartzen dute. Hortik aurrera, Julieta eta Paris Conderen arteko ezkontza ospatzeko festa zena, gaubeila mingarri eta goibel bihurtuko da. Pertsonaia guztiak eszenatik ateratzen dira, Conderen musikariak, hazama eta Pedro, Capuletoren morroia, izan ezik. Musikariek ezti-oturuntza dolu-bazkari bihurtzea espero dute.

Eszena

Hura gertatuz gero, tragediaren abesti bakarra agertzen den Pedro eta musikarien arteko eszena dibertigarri bat gertatzen da. Elkarrizketa Shakespearek deskribatutako pertsonaia askok erabiltzen duten mintzaira burlatiaren eredia da.

- ☞ **1. ERANSKINEAN** eszena honen testua dago (IV. Ekitaldia, IV. Eszena. Zatia). Horrekin gelan irakurketa dramatizatua edo antzezpena egin ditzakezue.
- ☞ Shakespearek hitz-joku asko erabiltzen du, hitzen itxura, soinua eta esanahiarekin jolasten gustatzen zaio. Bilatu hitz-joku “musikal” hauek.
- ☞ Pedrok musikariei jartzen dizkien izenak ere txantxak dira. *Koruko Juan* abeslaria da. Zein musika tresna joko lezake *Simon Hariak*? Eta *Hugo Biolak*? Asmatu itzazue goitizenak zeuen ikaskideentzat beraien zaletasunak kontutan hartuz.

Abestia

Hau “*When griping grief the heart doth wound*” abestiaren partitura da. Bai musika bai jatorrizko testua Richard Edwardsek eginak dira. Shakespearen hitzak Edwardsen bertsoen moldaketa dira. Melodia bi eskuizkributan kontserbatzen dira, bat laute bakarlarientzat (Galeseko Liburutegi Nazioanalean) eta bestea teklaturako (Museo Britaniarrean).

- ☞ Abestu ezazue melodia “a capella”, euskaraz eta ingelesez. Fraseatzeak asko aldatzen du? Zein hizkera da egoki edo erosoago testua musikan sartzeko?
- ☞ Egin ezazue musika-tresna desberdinetarako bertsioren bat: txirula ezti, gitarra, teklatu, laminak...
 - Monodikoak
 - Lagundutako melodia

Abestia - Song

Testu eta musika
Richard Edwards

Tris - te - zi - a da - go - e - ne - an

goi - bel - tzen zai - zu a ri - ma.

Zi - la - rrez - ko mu - si - ka da


gai - tza sen - da - tu - ko du - e - na.

When griping grief the heart doth wound,
and doleful dumps the mind oppresses,
then music, with her silver sound,
with speedy help doth lend redress.

West Side Story: Dantza Sinfonikoak

1957an Broadwayen *West Side Story* musikalaren estreinaldia izan zen. Ikuskizunaren arrakastaren ondorioz musiletik dantza-zenbaki batzuk atera ziren eta *West Side Story-ko Dantza sinfonikoak* antolatu ziren, 1960ean. Prokofievrek “*Romeo eta Julieta*” balletaren arrakastaren ondoren idatzi zuen suite hantzeko bat kontsidera dezakegu.

Ikuskizunaren musikan oinarritutako suitea eratu eta orkestratze-lana egiteko Bersnteinek Sid Ramin eta Irwin Kostali laguntza eskatu zien. Geroago berriro lan egin zuten berarekin Natalie Wood-ek 1961 protagonista zen film ospetsuaren soinu-bandaren moldaketa egitean.



Leonard Bernstein (1918-1990) iparramerrikarra, hogeigarren mendeko bigarren erdian musika klasikoa zabaltzearen aldetik gehien egin duenatariko bat da. Musikagilea, zuzendaria, hizlaria eta idazlea izateaz gain, komunikatzaile trebea zen eta musikari buruzko telesail bat aurkeztu zuen gazteentzat. Orkestraren burutik emandako ikasgaiak gure kontzertu didaktikoen aurrekaririk onena izan ziren.

Entzulego orokorraren musikaren aldetiko nahian eraginaz gain, bere konposagile lanak, batez ere West Side Story antzeko komedia musikalen partiturak, musika klasiko eta herri-musikaren arteko harreman berri bat sortzen lagundu zuen.

West Side Story-ko Dantza sinfonikoak musikalaren tarterik gehienak oinarritzen diren laudun gehitu ospetsuarekin hasten da, eta jarraian *Prologuera* pasa da (orkestrako musikarien hatz-kriskitinak barne daude).

Suiteko beste atalen segida “feeling”ean, istorioako korapiloan baino gehiago, oinarritzen da. Beraz, *Somewhere Prologue* eta *Mamboren* artean dago. *Meeting Scenea*, trinkotua, *Cool Fugarako* sarrera erakargarri bihurtzen da. *Rumbaren* ondoren Bernsteinek *Dantza Sinfonikoetan* agertzen den txirula-solo bakarra sartu zuen. Hau da oso ideia eder eta dramatikoa, *I Have a Loveren* parean, suiteko amaiera hautatuta (dantza ez den suiteko musika bakarra). Denok buruan ditugun bi akorde subdibidituekin suitea bukatzen da.

Nolanahi ere *Dantza Sinfonikoek* “serio” eta “herrikoiak” aldiberean izatea lortzen dute. Suite honek Broadwayeko musika kontzertu aretoetara eraman zuen, antzerki musikaleko partiturak sinfoniko tankeraz orkestatzean.

Gatazka antagonikoak

“Romeo eta Julieta” eta, batez ere, *West Side Story* gatazka antagonikotan oinarritzen dira: Capuletotarrak / Montescotarrak; Puerto Ricotarrak (“marrazoak”) / Anglosaxoiak (“Jet-ak”)... Xehetasunek ez dute garrantzirik, inporta duena lehia da. Izan ere, Bernsteinek musikala egiteko enkargua hartu zuenean, planteiatu zen lehenbiziko gatazka Judu / Kristauen artekoa izan zen...

- ☞ Holako gatazka antagoniko gehiago bururatzen zaizue? Gizarte, erlijio edo arrazen arazo jakinez gain beste batzuk aurkitzen saiatu. Gai orokor eta unibertsalagoak bilatu: Garapena / Sostenibilitatea; Norberekeria / Elkartasuna...

*West Side Story*rako Bernsteinen musika entzutean (bai musikala bai dantzak eta filmeko soinu-banda) beraien aberastasun erritmikoa aurkituko duzue. Musikagileak protagonisten ingurune eta kultur antagonikoak haien musikaren bidez deskribatzen ditu: latindarrak eta anglosaxoiak.

- ☞ Musikalana entzuten duzue, bi koadrilen arteko distantzia irudikatzen duten musika latindar eta iparramerikarra berrezagutzen dituzue?
- ☞ Noizbait fusionatzen dira? Kultur, arraza edo erlijioak elkarrekin fusiona daitezke beraien musikak bezala? Zer iruditzen zaizue holako mestizaje motak?
- ☞ Ziur aski zuen gelan jatorri desberdinetako ikaskideak daude. Ezagutzen al dituzue besteen ohiturak? Agian beraien folklore, tradizio, gastronomia, e.a. komentatzeko ezinbesteko aukera da.
- ☞ Beste kultur batzuen musiken entzun-saioa antolatu. Estilo tradizional edo purua eta kulturarteko fusioen arteko desberdintasunak nabarmendu itzazue.

Latindarrak: “marrazoak”

Mambo

“Suite”n agertzen denetariko dantza bat mambo da, 50ko hamarkadan ospe lortu zuena. Dantza moduan asmakizun hutsa da, ez duelako jatorri herrikoirik eta moda bezala sortu zelako. Hala eta guztiz ere, bere erritmo biziak, indarrak eta “sabrosurak” bailarinei gehien gustatzen zaienetariko erritmoren bat bihurtzea lortzen dute...

4 alditan (hiru mugimendu eta etenaldi bat) dantzatzen da, ezkerreko oinarekin aurrera urrats bat eta eskuinekoarekin atzera beste bat. Hau dantza “gogorra” da, oinen arintasuna eta indar asko behar dituena.

Erritmo musikal bezala Cuban garatu zen, danzon eta cha-cha-charen barnean zegoen zati instrumentalaren ondorioz. Zati instrumental horri musikariek “mambo” izendatzen zuten. Ezinbesteko musikajole eta konposatzaile zen Pérez Prado, zati musikal txiki hauek abesti bihurtzeraino luzatu zituen. Haren arrakasta berehalakoa izan zen.

- ☞ Bila ezazue eta dantzatu Pérez Pradoren “Mambo 5. zbk”aren bertsioren bat.

Romeo & West

Jarraian Bernsteinen perkusio orkestralaren moldaketa bat duzue gelan partzezko eta perkusio txikiko musika-tresnak jotzeko. Bi ostinato erritmiko dira (A eta B) eta deiar orokorrarekin amaitzen den zubi erritmiko bat (C). Zuek nahi duzuen errepikapen eta sekuentziak egin dezakezue. Jakina, dantzatu BEHAR DUZUE!

☞ Ez baduzue iradokitako musika-tresnak, beste batzuk erabili, mahaien gainean, paperontzietan eta ateetan jo... Maaaaaaaambo!

Mold. Ana Hernández

A

zintzarria

bongoak

kongak

Detailed description: This section contains three staves of music in 2/4 time. The top staff, labeled 'zintzarria', uses 'x' marks to indicate hits on a xylophone. The middle staff, 'bongoak', and the bottom staff, 'kongak', show rhythmic patterns with eighth and sixteenth notes, including some beamed eighth notes and a final half-note with a fermata.

B

kutxa txinatarra

txintzarria

bongoak

kongak

timbala

Detailed description: This section contains five staves of music in 2/4 time. The top staff, 'kutxa txinatarra', has a few notes followed by rests. The 'txintzarria' staff uses 'x' marks. The 'bongoak' and 'kongak' staves show rhythmic patterns with eighth notes. The bottom staff, 'timbala', features a steady eighth-note pattern.

C

Ahotsa

iMam- bo!

iMam- bo!

iMam- bo!

iMam- bo!

Detailed description: This section contains five staves of music in 2/4 time. The top staff is for 'Ahotsa' (voice) with the lyrics 'iMam- bo!'. The second staff has accents (>) above the notes. The third and fourth staves show rhythmic accompaniment for bongo and kong. The bottom staff shows a timbale accompaniment with eighth notes.

Huapango

West Side Storyko zenbakirik ospetsuenetariko bat (musikalean eta filmen, suiten ez agertu arren) “Amerika” da, mexikar huapangoren erritmoko tema bat. Denon ezaguna da hainbat aldiz abestutako melodia hori: “*qué bien se vive en América, todo es posible en América...*”. Amets amerikarra, etorkin latindarrek amesturiko panazea. Gaur egun hegoaldeetik etorritako beste etorkin batzuk ere gure herrialdean bizitza hobea lortzearekin amets egiten dute... dena loturik dago, ez da?

Huapangoan, dantza guztietan bezala, elementurik garrantzisuena erritmoa da. Tempo biziduna den huapangoren konpasa, orokorrean 6/8koa da, batzuetan 6/8 eta 3/4ko aldi bereko konbinazioa ager daiteke eta, gutxitan, 6/8 eta 2/4koak balore irregularrekin konbinatzen dira.

Gitarrako zarrasta oso azkar batez laguntzen da. Musikariak harien kontra ukabilez jotzen du, konpaseko aldi desberdinetan, baina beti konpasaren hasiera azentu markatu batez seinalaten: hau da huapangoren erritmo berezia. Ekintza horri huapangojoleek *azote* deitzen diote. Dantzaren erritmoa markatzen duen gitarra huapangoan “azoteak” aldatzen du lurraldeen arabera. Arruntena 6/8ko konpasean jotzen dena da.

- ☞ **2. ERANSKINEAN** “Amerika” piezaren musika-tresna melodiko eta perkusio txikikoetarako, gitarra lagundutako moldaketa bat aurkituko duzue. Iradokitako tresnez gain menperatzen dituzuen besteak erabil ditzakezue (biolina, klarinetea, saxofoia...). Gitarrako akordeak jarraituz gero teklatu batez lagundu dezakezue. Musika-tresna kromatikori ez baduzue edo moldaketa errazagoa behar baduzue, “Lehen hezkuntzako Gidan” eskuratu dezakezue.
- ☞ Huapangoren egitura eta nahasten dituen konpasak erritmikoa ikertu.
- ☞ Nahiz eta musikalean pieza honek berezko hitzak dituen, huapango datorren lurraldea den Hídalgo jatorrizko hitz batzuekin abestea proposatzen dizuet. Leonard Bernstein ohiko huapangoa errespetatu bazuen, testua musikan arazorik gabe sartuko duzue.

*Una flor que no se seca
y que su aroma convence
es mi querida Huasteca
esa Huasteca Hidalguense.*

*Enchiladas con bocoles
las truchas que buenas son
no hay mejor que mi Huasteca
para darse un buen quemon.*

*Le han cantado a Veracruz
a Jalisco y Tamaulipas
con gusto le canto a Hidalgo
que tiene cosas bonitas.*

Egilea: **Nicandro Castillo**


Buleria

Leonard Bernstein, beste musikari amerikar ospetsu batzuk bezala, flamenko palo desberdinekin liluratu zen. Hain zuzen ere, esan zuen: “*Espanian, gehien interesatzen zaidana musikal arloan Flamenkoa da*”. Flamenkoren aditu batzuk “Amerika”, landu dugun huapangoa, *buleria* erritmoan oinarritutako abestia besterik ez dela esaten dute...

Adierazpen honekin ados ala ez ados gauden jakiteko palo edo toke flamenko hau ezagutu behar dugu:

Buleria: (bulería-tik, burla=txantxa; edo bullería-tik, bulla=zarata, algara, jaleo). *Palo* zaratatsu, dibertigarri eta alaia. Erritmo arina eta konpas bikoiztuaren esker beste kantu baino egokiagoa da txalo eta *jaleorako*. Askotan beste kantu batzuen errematea da, *soleá* kasuan bereziki, baita edozein festa flamenko izen bereko dantza batekin amaitzen da. Kasu horretan, talde osoa zirkuluerdian eszenatokiaren erdigunean elkartzen da eta jokatzailerak, bat bestearen atzean, piezaren zati bat dantzatzera ateratzen dira. Normalean bakoitzaren txanda dei batekin hasten da eta bakoitzaren tokira itzultzeko ateraldiarekin bukatzen da.

Buleriako erritmoa:



- ☞ Praktikatu eta ikasi buleriako txaloak. Txalo berdintsuak markatzen dira eta azpimarratuta daudenak azentuatzen dira. Ostinato bat da, formula erritmiko beraren kiribila. Hasieran zenbakiak ozenki esatea komeni da (horrela ikasten ohi dira erritmo edo palo desberdinak). Kontutan hartu azken 1, 2 benetan 11, 12 dela, baina errazteko horrela esaten dela.
- ☞ *Buleriaren* definizioan bere dantza antolatzeko modua azaltzen da, inprobisazio segida bezala. Biribilean jarri, buleriako txaloak jo eta banaka erdira atera dantza inprobisatzera, erritmoaz inspiratuz.



“*Romeo eta Julieta*” (edo “*West Side Story*”) eta flamenkoaren arteko harreman hau zineman ere islatu da.

“*Los Tarantos*” filmeak (1962), Antonio Gades eta Carmen Amaya dantzariak egina, bi familia etsaien gatazka ijitoen mundura eramandu (Tarantotarrak eta Zorongotarrak). Bere ezinbesteko soinubandak musika eta dantza flamenkoen palo desberdinak aztertzen ditu. Gerorago antzerki moldaketaren batzuk ere egin dira.

Anglosaxoiak: “Jet-ak”

Iparramerrikerak, “Jet-ak”, bereizten eta deskribatzen dituen musikak itxuraz ez du zerikusirik entzun eta landu ditugun erritmo latindarrekin. Baina, sakonki ikertuko ba genu, erritmo ugari guzti hauen eta kontratempo guztien jatorria bat datozela aurkituko genuke: Afrika. Bilakaera desberdinak esklabista eta kolonizatzaile espainar, britaniar, e.a.rekiko mestizaje-prozesuaren araberakoak izan dira. Gai interesgarria da, baina orain ez dugu zabalduko, zuen kabuz beste batean ikertu dezakezue eta. Oraingoz Bernsteinek erreferente musikal hau birsortzen duen bi atal ezagutuko dugu.

Prologue

Seguru aski ongi ezagutzen duzue *West Side Story*ko hitzaurrekoaren lehenengo tema:

Prologue



Kriskitinak

Grabaketan entzun ezazue. Jatorrizko bertsioak ez du hainbeste hatz-kriskitin, zuek hobe jarraitzeko eta sentitzeko kontratempoa melodian zehar moldatuta dago. Abestu ala txistuka egin dezakezue. Ikaskide musikariren bat baldin baduzue, *feeling* askoz jotzeko eskatu.

Cool Fuga

Perkusio latindarrerako partiturak ikusi eta jo egin duzue. Orain orkestra-partitura bat ikusteko unea iritsi da. Hor *chaston* edo platertxoan erraztoaz jotzeko *swing* asko duen erritmo bat duzue.

3. ERANSKINEAN Leonard Bernsteinen *West Side Story*-ko *Dantza sinfonikoen* orkestra-partiturako orrialde bat daukazue.

- ☞ Begira ezazue musikatresnen banaketa partituran. Non daude harizko tresnak? Eta haizezkoak? Zeintzuk dira giltza batez loturiko bi pentagrama behar dituzten bi tresna? Zergatik?
- ☞ Bila ezazue partituran perkusioko lerroa. Zergatik dagokion idazkera desberdina da?
- ☞ Egokiak iruditzen zaizkizuen musika tresnez ostinatua jo ezazue. Jazz-estiloko banakako inprobisazio erronda bat egin ezazue. Nahiago duzuen egin: abestu, tronpetarena egin, erritmoz errezitatu, e.a.

DISKOGRAFIA

BERNSTEIN, L. *West Side Story*. L. Bernstein, Zuz. Deutsche Grammophon, 1985.

BERNSTEIN, L. *West Side Story-ko Dantza Sinfonikoak*. Bertsio ugariak:

* *Bernstein Century*. L. Bernstein, Zuz. Sony SMK 63085

* *America for Two*. Genova & Dimitrov Bikotea. CPO - 7770392

* *W. S. Story-ko Dantza Sinfonikoak*. Dag Achatz, pianoa. BIS- bis 352.

PROKOFIEV, S. *Romeo & Juliet. Complet Ballet*. S. Ozawa, Zuz. Deutsche Grammophon, 1987.

PROKOFIEV, S. *Romeo y Julieta. Liburu-diska*. AgrupArte. Gasteiz, 1999

BIBLIOGRAFIA

BERNSTEIN, L. *El maestro invita a un concierto*. Siruela. 2003

PACHECO, M.A. *Romeo y Julieta. Liburu-diska*. Agruparte. Gasteiz, 1999

PALACIOS, F. *La brújula al oído*. AgrupArte. Gasteiz, 2004

SHAKESPEARE, W. *Romeo y Julieta (Versión Angel-Luis Pujante)*. Austral. Espasa-Calpe. Madril, 2003.

SHAKESPEARE, W. *Romeo y Julieta*. Librería de oro juvenil. Bilsa. Madril, 2001

1. ERANSKINA

Romeo eta Julieta. IV. Ekitaldia. IV. Eszena (Zatia)

Denak, MUSIKARIAK eta HAZAMA izan ezik, gorpuaren gainetik erromeroa bota eta gortinak ixten dituen.

1. MUSIKARIA: Musikarekin beste alde batera joan gaitezke..

HAZAMA: Zoazte, lagunak, zoazte; ikusten duzuenez, min handiko kasua da eta.

Ateratzen da.

1. MUSIKARIA: Bai, mina daukazunean egiten dizuten kasua da.

PEDRO *sartzen da.*

PEDRO: Musikari hauek, musikari hauek! "Arimaren bakea". Bizirik jarrai nadila nahi izanez gero, "Arimaren bakea" jo ezazue!

1. MUSIKARIA: Zergatik "Arimaren bakea"?

PEDRO: Ai, musikari hauek! Nire ariman "Arima puskatzen zait" entzuten dudalako. Ene, kontsolatu zakizkit eresi alai batekin!

1. MUSIKARIA: Eresirik ez. Ez da jotzeko ordurik.

PEDRO: Orduan ez?

1. MUSIKARIA: Ez.

PEDRO: Bada sonatua eman behar dizuet.

1. MUSIKARIA: Zer eman behar diguzu?

PEDRO: Dirurik ez: gerra. Tonuan jarriko zaitut.

1. MUSIKARIA: Eta nik morroitzat jarriko zaitut.

PEDRO: Orduan morroi-sastakai honek kaskamotza utziko zaitu. Neri ez ari txioka, solfeatzen zaitudala eta. Har ezazu nota.

1. MUSIKARIA: Solfea ezazu eta nota emanen duzu.

MÚSICO 2º: Hara, erakutsi zein azkar zaren eta zorroan sartu sastakai hori!

PEDRO: Erne egon, ba! Nire sastakaia zorroak sartuko dut eta nire azkartasunaz irabaziko zaituztet. Gizonak bezala erantzun:

"Tristezia dagoenean
goibeltzen zaizu arima,
zilarrezko musika da..."

Zergatik "zilarrezko"? Zergatik "zilarrezko musika da"? Zer esaten duzu zuk, Simon Haria?

1. MUSIKARIA: Bada, zilarrak bezala, goxoa sonatzen duelako.

PEDRO: Hitzak! Zer esaten duzu zuk, Hugo Biola?

2. MUSIKARIA: "Zilarrezko" musikariei zilarrez ordaintzen digutelako.

PEDRO: Hitz gehiago! Eta zer esaten duzu zuk, Koruko Juan?

3. MUSIKARIA: Ba ez dakit zer esan.

PEDRO: Ai, barkatu! Abeslaria zara... Nik esanen dizuet: "zilarrezko musika da" musikariek ez duzuelako inoiz urrerik jotzen.

"... zilarrezko musika da
gaitza sendatuko duena"

Ateratzen da.

1. MUSIKARIA: Bai deabru haserregarria!

2. MUSIKARIA: Doala pikutara! Tira, sartu gaitezen. Dolua espero eginen dugu eta beraiekin bazkaltzeko aukera iritsiko zaigu.

Ateratzen dira.

ANEXO 2

WEST SIDE STORY

L. Bernstein

AMERICA

Arr. Ana Hernández

Tempo de Huapango $\frac{6}{8}$ / $\frac{3}{4}$

1ª voz

2ª voz

Xil.A., Met.A.

Xil. B., M. B.

claves

Detailed description: This system contains the first four measures of the piece. It features five staves: two vocal staves (1ª voz and 2ª voz), a xylophone staff (Xil.A., Met.A.) with accents (>) over the first three measures, another xylophone staff (Xil. B., M. B.) with dotted rhythms, and a claves staff with a complex rhythmic pattern of eighth and sixteenth notes.

Detailed description: This system contains the next four measures of the piece. It features four staves: two vocal staves (1ª voz and 2ª voz) with melodic lines and some ties, a xylophone staff (Xil.A., Met.A.) with eighth-note patterns, and a xylophone staff (Xil. B., M. B.) with dotted rhythms. The claves staff continues with its rhythmic pattern.

Romeo & West

The first system of the musical score consists of four staves. The top staff is a treble clef with a melody of eighth and quarter notes. The second staff is a treble clef with a melody of eighth and quarter notes. The third staff is a treble clef with a melody of eighth and quarter notes. The fourth staff is a bass clef with a melody of eighth and quarter notes. Below the fourth staff is a line of rhythmic notation with eighth and quarter notes.

The second system of the musical score consists of four staves. The top staff is a treble clef with a melody of eighth and quarter notes. The second staff is a treble clef with a melody of eighth and quarter notes. The third staff is a treble clef with a melody of eighth and quarter notes. The fourth staff is a bass clef with a melody of eighth and quarter notes. Below the fourth staff is a line of rhythmic notation with eighth and quarter notes. The word "triángulo" is written above the rhythmic notation in the third measure of the system.

Romeo & West

The first system of the musical score consists of five staves. The top two staves are treble clefs, the third is a bass clef, and the bottom two are bass clefs. The music is written in a 2/4 time signature. The first staff has a melody of eighth notes. The second staff has rests followed by a melodic line. The third staff has a steady eighth-note accompaniment. The fourth and fifth staves provide harmonic support with chords and single notes. The bottom two staves are for a guitar-like instrument, with rhythmic notation including eighth and quarter notes.

The second system of the musical score consists of five staves. The notation is similar to the first system. The first staff continues the melody. The second staff has rests followed by a melodic line. The third staff has a steady eighth-note accompaniment. The fourth and fifth staves provide harmonic support. The bottom two staves are for a guitar-like instrument. The word "triángulo" is written above the final staff of this system, indicating the use of a triangle. The notation includes rests and rhythmic figures.

Romeo & West

ANEXO 3

Fugue

607

Fl. 1

Bass Cl. in B \flat

Alto Sax. in E \flat

Tpt. in B \flat 1

Brush on Cym.

Vibr.

Piano

Harp

Vcl. (div.)

Cbs.

Solo
Tight cup mute
fp cresc. molto

607

612

Tpts. in B \flat 1

2

3

Bongos

Brush on Cym.

Vibr.

Piano

Harp

Cbs.

612

(pizz.)
fp